

3.PIEZA

▣ FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure enpresako hornitzaileak aukeratzeko momentuan hainbat faktore izan ditugu kontuan. Alde batetik, jostailuak aukeratzeko momentuan, kalitate ona dutenak aukeratzeko ditugu. Jostailuei dagokionez, argi geneukan ez genituela nahi edozein jostailu. Denda gehienetan saltzen edo eskaintzen dituzten jostailuak gizartean nagusi diren balioetako batzuk indartzen dituztelako, hala nola belikoak, sexistak, klasistak eta kontsumistak.

Jostailuaren aukeraketa egiterakoan irizpide nagusi batzuk izan ditugu kontuan, adibidez:

- Jostailua zenbat eta egituratuagoa izan orduan eta sormenerako askatasun gutxiago eskainiko du.
- Estetika: Erakargarria izatea komeni da (forma, kolore, tamaina ...)
- Umearen garapen, behar eta interesekin bat etortzea.
- Jolasa modu globalean eta aukera ugariekin (sinbolikoa, irudimentsua, sortzailea...) sustatzea.

Irizpide hauek direla eta hornitzaile hauek aukeratu ditugu gure ludoteka sortzeko:

- <http://www.grapat.online/blog/>
- <https://mamaluzcajasdeluz.es/pikler-y-waldorf/>
- http://didakma.com/index.php?option=com_virtuemart&view=category&virtuemart_category_id=30&Itemid=101&lang=es&limitstart=80
- <https://www.loralora.com/collections/juegos-5-8-anos?page=4>



Materialari dagokionez, material hornitzailea Caype izango da, gure beharretara gehien egokitzen den enpresa delako.

Alde batetik, oso merke saltzen dizkigute material guztia, kalitate oso onarekin eta oso azkar bidaltzen dizkigute erositakoa.

Interneta albo batera utziz, Caypek denda fisikoa du Gasteizen. Hori esker, dendara joan ahal gara, eta pertsonalki materiala ikusi, aukeratu eta erosi.

Bestalde, deskontuak egiten digute astero erosten ditugulako haien produktuak. Hori kontuan hartuta, diru asko aurreztu ahal dezakegu beste gauzetan inbertitzeko.

Caypen, edozen material aurki ditzakegu. Stand bat dago eskulanei zuzenduta. Han, eskulanak eginda daude eta erabili dituzten materialak saltzen dute. Hortik abiatuta, gure ludotekarako ideiak hartu ahal ditugu eta material hori erosi zuzenean.

Eskulaneako materialaz gain, gure ludoteka apaintzeko altzairuak erosi ahal ditugu ere bai, adibidez: armairuak, mahaiak, aulkiak...



<https://www.caype.com/catalogos/>

Bestetik, urtean zehar gurasoek formakuntzak jasoko dituzte, ez delako ezertarako balio haurrak gai baten inguruan formatu , gurasoak formatuta ez badaude.

Horregatik hilabetero igande edo larunbat batean , gurasoek gai jaikin baten inguruan formakuntza jasotzeko aukera izango dute. Formakuntza horiek nagusiki gure hezitzaileak emango dituzte, baina beste formakuntzetan kanpoko hezitzaile,adituen... zerbitzua beharko dugu. Adibidez: Mohamed Hizyek arrazakeriaren inguruan formatuko ditu gurasoak, bere esperientzia kontatuko die, azalduko die nola jokatu behar den arrazakeriaren kontra.... eta holako gaiak jorratuko ditu. Holako pertsonak etorriko dira formakuntzak ematera , gurasoak ongi formatuak egon dezaten, haien seme-alabak bezala.



Lehiakidei dagokionez, esan dezakegu erosten ditugun materialak beste ludoteketan ohikoak ez diren materialak direla. Egiten ditugun jarduerak inoiz ikusi eta egin ez diren jarduerak dira, beraz, material berri eta ezberdinak eskainiko diegu gure bezeroei. Produktuak erosteko, nahi dugun helburua betetzen dituzten materialak eskaintzen dizkiguten enpresa ezberdinak aukeratu ditugu.